

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko ekainaren 16a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**




**Sakana** • Jai Busa bihar abiatuko da lehenbiziko aldiz, Etxarriko jaietara joateko

**Patxi Telletxea** • «Agintariek hizkuntzak ikasi beharko lituzkete»

## Erabiliriko

# uraren garbiketa



• OSKAR MONTERO

Egunean hamaika aldiz irekitzen dugu ur txorrotak. Kasik egunero dutxatzen gara. Arropa astean bitan edo hirutan garbitzen dugu. Eta edaten dugun ura ere ez da gurean gelditzen, txizarekin batera kanporatzen baitugu. Ur hori guzia garbirik hartzen dugu, baina guk ukitu bezain pronto zikindu egiten da. Eta hartzen dugun ura garbirik egotea garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da kanporatzen dugun ura ibairatu baino lehen garbitzea.





# Lekunberri • Argazkiak berriro ere

Bi urteko etenaren ondoren, argazki zaharren erakusketa ikusgai egonen da

Larraungo haraneko azken mendeko bilakaera ikusteko parada izanen da heldu diren hamabost egunetan Lekunberriko Kultur Etxean zabalik egonen den argazki zaharren erakusketan.



Mitxausean XX. mende hasierako argazkiak ikusten ahal dira, hala nola, Uitziko tunela eraiki zuteneko edo lekunberriarrak pertsonaia famatu baten bisitaren zain zeudenekoa. ● EGUNKARIA

**A**STELEHENETIK AURRERA, Larraungo harana osatzen duten herri eta biztanleen bilakaera ezagutzeko aukera eskainiko du berriro Mitxausean kultur etxeak. Ohitura handiko erakusketa hau 1994 urtean zabaldu zen lehenbizikoz, eta bi urteko atsedenaldiaren ostean, aurten berriro antolatzea pentsatu zuen Inma Etxarrik, Mitxauseaneko kultur teknikariak. «Erakusketa bost urtez jarraian egin ondoren, jendea nekatu samarra zegoela nabaritu genuen; horregatik, atsedenaldi bat egitea erabaki genuen», esan du Etxarrik.

Aurten, beraz, maiatzean lanari ekin zioten berri. «Azken finean, erakusketa aitzakia bat da artxibo bat

sortu ahal izateko», dio Etxarrik. Azken urteotan egindako lanaren emaitza 1.200 argazki osaturiko artxibo bat da. Berauen eskutik, gaika sailkatutako irudiak topa daitezke, esate baterako, antzinako eskola, ezkontzak edo ospakizun erlijiosoak.

### 120 argazki ikusgai

Aurten 120 bat argazki ikusi ahal izanen dira, denak zuri-beltzean, Lekunberri, Errazkin, Oderitz eta Arruitz herrietako 15 familiak utziak. «Maiatz aldera eskutitz bat bidaltzen zaie Larraungo biztanleei erakusketan parte har dezaten eskatuz, baina argazkiak lortzea ez da lan erraza izaten, jendeak bere etxeok ez duela

balio pentsatzen baitu», azaldu du kultur etxeko arduradunak. «Horregatik, ahoz aho ibiltzen naiz azpiko lana egiten argazkiak lortzeko».

Argazkiak XX. mendean gertaturiko aldaketan lekuko dira, baina bada aurreko gizaldi bukaerarik ere. Denetatik ikusten ahal da erakusketan: erretratuak, oraindik zutik dirauten bostehun urteko etxeak, antzinako ezkontzak nahiz mota askotako kirolariak.

Inma Etxarriren esanetan, jende asko joaten da kultur etxeraino, aukera polita baita haranaren historia ezagutzeko. Aurten ikus daitezkeen argazkien artean bada mende hasieran Lekunberri ateratako bat. «Ez dakigu zehazki noizkoa ote

den, baina norbait oso inportantea zetoirela nabari da baserriarren jantziak oso dotoreak baitziren».

Erakusketa propio prestatuturiko gela batean egonen da, antzinako ukulua zegoen tokian. Mitxausean kultur etxea, liburutegia eta Musika Eskola bostehun urteko etxe bat da, eta 1991 urtean berritu zuten.

→ Estibalitz Ortega

### Larraungo Argazki zaharren erakusketa

**Lekua:** Mitxausean (Lekunberri)

**Epea:** Ekainaren 18tik 30era

**Ordutegia:** Egutegia, 18:00etatik 20:00etara, eta igande goizetan

## Uharte • Euskararen astea eta Uharteko eguna

Uharteko eta Esteribarko Zerbitzu Mankomunitateak, Berdintasuna Kultur Elkar-teak eta Oihana Taldeak antolatuta, heldu den astean euskararen inguruko hainbat ekitaldi egingen dituzte Iruñea ondoko Uhartean.

Hasteko, astelehenean, kultur etxean, *Euskara eta asoziazionismoa* izenburuko erakusketa zabalduko dute. Nafarroako gazte kontseiluak prestatu du erakusketa, eta larunbata arte egonen da zabalik. Astelehenean bertan, Patxi Telletxeak mintzaldia egingen du kultur etxean, 20:00etan, Europako hizkuntzen urtearen inguruan. Asteazkenean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Parranda* ikuskizuna eskainiko dute, 18:00etan, Toki Alai pilotalekuan.

Ostegunean, berri, mahai ingurua egingen dute, gaztelaniaz, euskarak Nafarroan duen orainaz eta geroaz hitz egiteko. Kultur etxean izanen da, 20:00etan. Ostiralean, 22:00etan, euskaldunen arteko afaria egingen dute, eta larunbatean, 20:00etan, Uharteko kultur taldeen jaialdia izanen da Toki Alai pilotalekuan.

Astea akitzeko, igandean Uharteko Eguna ospatuko dute. Egun osoko besta izanen da, eta, besteak beste, honako ekitaldi hauek antolatuko dituzte: gaitarien goiz soina, euskarazko meza, eskulangileen erakusketa, herri kirolak, herri bazkaria, trikitalarien emankizuna, haurrentzako jokoak eta dantzaldia.

→ Daniel Urrutia

## zubian barna

BINGEN AMADOZ



**E**z da oraingoa Nafarroan tolerantziaren eta begirunearen garaia. Ezta jakintasunarena edo zuhurtasunarena ere. Gorraitz bezalako gaztelu-ghettoetan ari dira pilatzen aberats berriak eta, nahi eta ezin, haien arrimuan, aho zabaleko handikerietan bizitzen saiatzen direnak. Ez dugu inon morroiak gabeko dirudunik ikusi. Bertako neoliberalismoak altxatutako harrisi horietatik kanpo bizi garenok, ia guztiok, menperatzeko moduko xumekeriak omen gara maila onera berriki iritsitakoen uste ez-apalean.

Boterearen gorenean bakar batzuk ari dira hariak harantz eta honantz mugitzen. Amuak jarri dituzte harien muturretan. Txotxongilo nahi gaituzte edo amurraingizajo, ahoan urdai azpikoa sartu eta «a la navarra», nafarren erara jangarri izan gaitezen. Baina Nafarroa txikia

## Sesmako jakintsua

da. Botereko gure mementoko jauntxo burmuin txikikoek zitakeriak egiten dizkigute etengabe, eta huskeriak salduz, gure erresumako izena barreiatu nahiko lukete munduan. Merkaturatzerakoan, ordea, Bilbo eta Donostiaren ondoan bizi garela esan behar dute derrigorrez, bestela nork jakinen luke egun, maparen zein puxka tokatzen zaigun... Aurreko agintariak bezalaxe, beren jabetzak mila urte iraunen duela uste dute. Gaixoak!!! Kariakako hotsa adituko balute, denbora askotarako ez daudela jakinen lukete. Berez erori behar dute, gehienon kontra egiten dituzten okerren ondorioz.

Kontua da... etxean denok ezagutzen dugula elkar eta beren amuan ba... ez dugula hozkarik egiten. Umiltasunik ez dute munduari begira eta etxeko aferetan ba... iparra galdu dute. Beren auzune aberatsetan isolatu dira, eta

gizarteak oro har bizi duen errealitatea nolako den ez dakite jadanik. Bartzina eta Santz ditugu botereko erpina. Ansuategik bereak egiten segitzen du Ebrotik bestaldera. Prados jaunak nahi du orain berak utzitako hutsunea bete eta gizarte honetako gutxi batzuen asmoak aurrera eramanez, gehiengoaren etsai bihurtu da. Sesmako gure errektoreak ez du zuhurtasunez jokatzeko. Jakinduria landu beharrean, herriko jauntxo aberastu berrien moduak erabiltzen ditu. Txomin del Regato ere Sesmako zen, eta gure errektoreak bezala, Prados zeukan lehen izena eta Casadamon bigarrena. Ezagutuko dute elkar. Etxe berekoak ez badira. Txominek aspaldian botatzen zituenak gogoratuko dizkiogu errektoreari: «Sobre todo hay que tener sabiduría, mucha sabiduría...». Jejejeje.



# Sakanako • Jai Busa abian da

Sakanako jaietan ibiliko diren bi autobusak Lekunberriraino ailegatuko dira aurten



ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

**Iazko esperientzia ona ikusirik, Sakanako Mankomunitateak eta ibarreko oinarrizko gizarte zerbitzuek berriz ere antolatu dute Jai Busa izeneko ekimena. Gazteentzako zerbitzuak hainbat berrikuntza dakartza.**

**B**I HAR BERTAN ABIATUKO DA aurtengo Jai Busa, Etxarri eta Lizarragan San Adrian jaiak ospatuko baituzte. Jai Bus zerbitzuak errepide istripuak gutitzea du helburu, baita gazteen artean alkohola eta bestelako substantzien kontsumo arduratsuen beharra zabaltzea ere. Horrela, bada, Sakanako Mankomunitateaz aparte, Nafarroako Gobernuak Osasun Sailak ere ordaintzen du Jai Busa.

Eta Lekunberriko Udalak ere parte hartuko du Jai Busaren finantzaketan. Izan ere, aurten Jai

Busa Lekunberriraino ailegatu-ko da. Bertako gazteek Jai Busa hartu ahal izanen dute Etxarri, Irurtzun eta Altsasuko jaietara joateko, Larraungo gazteek gehien ibiltzen diren jaiak hain zuzen. Jai Buseko arduradunek iaz ikusi zuten Lekunberriko gazteak autoz joaten zirela Irurtzuneraino, hantxe autobusa hartzeko. Jai Bus zerbitzua Lekunberriraino zabalduz, bukatuko da jokabide arriskutsu hori.


Aurten, iaz ez bezala, bi autobus ibiliko dira gora eta behera. Baina bidaia gehiago egingo di-

tuzte. Bederatzi egunetan funtzionatuko du Jai Bus zerbitzuak. Horrek guztiak autobus txartela garestitzea ekarri du. Aurtengo joan-etorriak 250 pezeta balioko du, iaz baino ehun pezeta gehiago. Autobusetan bi arduradun joanen dira une oro, gazteei ordutegien gaineko eta gizarte zerbitzuen kanpainen inguruko informazioa emateko.

Aipatu bezala, Jai Buseko ar-

duradunek ontzat jo dute iazko esperientzia. Zerbitzua martxan izan zen bitartean eskualdean ez zen errepide istripurik izan. Jai Busak joaneko 50 bidaia eta etorririko beste 30 egin zituen, eta, denetara, 2.141 txartel saldu ziren. Kontuan hartu behar da Sakanan 16 eta 26 urte bitarteko 3.000 bat gazte dagoela.

→ Asier Azpilikueta



Jai Bus zerbitzua bihar abiatuko da. • EGUNKARIA

## Lurra

Gazteluko plazari buruz zer edo zer idatzi nahi nuke, baina utzidazue aurretik aspaldian ikusi nuen gertakizun txiki bat kontatzen: kontua da negu batean udaletxeko langileek auzora etorri eta espaloi batzuk egin zituztela, eta aurretik lur hutsa eta benetakoa zena baldosaz estalia geditu zen. Bertan zeuden zuhaitzekin halako «salbuespen» bat egin zuten, arnasa eta ura har zezaten, eta lur zati karratu bat utzi zieten. Nire begien aurrean gertatu zen hori guztia, eta ikusi ahal izan nuen nola baldosen azpian lurra dagoen eta zein modu errazean gal dezakeen lurra berez duen potentzial guztia. Gehiegizkoa irudituko zaizue, baina nik negu horretan lurra nola hartzen zuten preso ikusi nuen. Bada, (harira Xabi, harira!), udaberria iritsi eta urtero gertatzen den legez, eguzkia be-roago jotzen hasi zen, airea eta lurra berotu ziren eta lurraren azpian zeuden inurri guztiak iratzarrita, galerietatik gora eginez eguzkiaren bila hasi ziren, baina eguzkiarekin baino baldosekin egin zuten topo. Inurriak tematiak izanik, ez zen denbora asko igaro zuhaitzen inguruan utzitako lurraren azala aurkitu zuten arte, eta, lur zati karratu bakartu haietan, hasi ziren preso hartutako inurritegi guztien galeria berriak ateratzen. Eta orduan gerra hasi zen, zeren inurritegi guzti-guztiekin bost karratutan mugatuak zituzten beren sarrerak, eta hori ez da inurri-legea. Gazteluko plaza-ekin horrelako zer edo zer egin nahi dutela otu zait. Lurraren ordezkor-migoia jarri nahi dute, eta arbolak lorontzietan sartu. Parkingaren kontra daudenak zoruaren azpian dauden harresiak eta ondarea zaindu behar direla diote. Nire ustez, ondare horiek baino gehiago, hortik ustiatu eta atera nahi duten lurra bera defendatu behar da. Zuhaitzek arnasa eta ura har dezaten, inurritegien legeak mantendu daitezten. Eramandako lur hori ez dute sekulan itzuliko. Urtao-etan, plaza horretan ez da deus ere gertatuko. Bere bizitza laua izango da, harlauzen antzekoa. •

## Sakanako Jai Busaren bidaiak

Eguna	Jaietako herriak
Ekainak 16	Etxarri-Aranatz / Lizarraga
Ekainak 23	Arbizu / Unanu / Uharteko Arakil
Ekainak 29	Altsasu / Arbizu
Uztailak 21	Irurtzun
Uztailak 28	Bakaiku / Olazti
Abuztuak 4	Etxarri-Aranatz
Abuztuak 25	Lakuntza
Irailak 8	Ithabar / Izurdiaga / Irañeta / Ziordia
Irailak 15	Altsasu

Autobusak 23:00etan eta 00:00etan aterako dira, Irurtzun eta Ziorditik. Jaietako herrietatik 03:00etan, 06:00etan eta 08:00etan itzuliko dira.

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Julie Lambert eta Maialen Errotabehera kantuan

Julie Lambert eta Maialen Errotabehera abeslari kantuak jaso berri dituen diskoari buruz mintzatzen da **Herria** astekaria bere azken zenbakian: «Orroitz gira zer arrakasta ukan zuten bi emazte kantari hauek, iragan martxoan Izpuran eskaini zauten 'Emazteak kantuz' gaualdian. Kantaldi hori da zuzenki grabatua izan. Ondorioa hor dugu: konpakto-dizka eder eta goxo bat, 16 kantu-ekin, gehienak berriak».

«Hemezortzi urteko ezpeletar gazte bat dugu Maialen Errotabehera. Euskal kantu xapelketako finalean lehen saria eskuratu zuen, Gernikan. Ezpela koroan ari da ere kantuz. Julie Lambert aldiz Ameriketatik heldu zaiku. Euskal Herriartua da

hiru urte huntan. Dizka huntan bi emazte gazte hauek beren talentu handia juntatu dute, musikari-artista batzuren laguntzarekin: Pascal Gaigne, Karlos Gimenez... kantuen idazleentzat zonbeit Aitor Sarasua, Arantxa Hirigoyen, Maitena Falta, Xabier Itzaina eta Julie Lambert ditugu».

«Garaziko trinketeetan aurkeztu daukute obra hau Garazikus elkarteko Thierry Biscarry eta Kulturlan dizkaetxeko Paxkal Indok eta Patxi Urangak. Urte bat eterdi huntan sortua da Garazi-Baigorri eskualdean kokatzen den dizkaetxe berri hau, eta jadanik zazpi dizka ekoiztu ditu. Euskal Herri barnealdean sorkuntza nahi du bultzatu, plazaratu, bai musika mailan, bai bideo mailan».

**Euskalerrria Irratia**

FM 91.4

**Ekainak 15, Ostirala 9:30etan**

**Atarrabiako Paz Ziganda Ikastolan**

**LARREKO AFARIA 2001**

**EUSKALERRRIA IRRATIA FM 91.4**



# Arazuriko araztegia

Mankomunitateak bisita gidatuak antolatu ditu biharko, hondakin uren araztegiak nola funtzionatzen duen erakusteko

Iruñerriko biztanleek edaten eta erabiltzen duten ura Eugi eta Artetan hartzen dute, Egillor eta Urtasunen jartzen dute edateko moduan, eta ur hori, Argara itzuli baino lehen, Arazuriko Hondakin Uren Araztegiaren garbitzen dute.

Arazuriko araztegiak ikastetxeetako haurren bisitak jasotzen ditu batez ere. Bihar edozeinek ikus dezake araztegia, Iruñerriko Mankomunitateak antolatutako bisita gidatuen bidez. Gaztelaniaz edo euskaraz. Hizkuntza gorabehera, kontua da Arazuriko urak garbitzearen garrantziak jabetzeko aukera ezin hobe dagoela.

## Araztegitik Argara

Arazuriko araztegia 1990eko abuztuaren jarri zen martxan. Ordura arte, Iruñerriko kontsumitzen zen ur guzira Argara isurtzen zuten zuzenean. «Bi ueste oker daude», erran du Belen Ausejok, Arazuriko gidari euskaldunak. «Lehen ueste okerraren arabera, Arga ibaiaren ur emari osoa araztegiara sartu eta hemen garbitzen da. Bigarren okerrak dio hemendik ateratzen den ura edateko modukoa dela».

Erran bezala, Iruñerriko zikiduriko ura ez da Argara zuzenean botatzen. Araztegiara hiru ur mota ailegatzen dira: etxeetan kontsumituko ura, industrietako ura eta euri ura. Kolektore sare baten bidez, ur hori bildu eta Arazuriko garbitzen da Arga ugaldara isuri aitzin. Arazuritik ateratzen den ura garbi dago, bai, baina ez da edateko modukoa.

Arazuriko urak nola garbitzen diren hobeki ulertzeko interpretazio zentro bat dago. Aukerarik onena araztegitik buelta bat ematea da prozesuko fase guzikiak ikusteko: aurretratamendua, lehen eta bigarren mailako dekantazioak eta biosolidoen tratamendua.

## Sei tona hondakin, lekuz kanpo

Aurretratamenduan «uretan egon behar ez luketen gauzak kentzen dira», Ausejok erran duenez. «Arduatsa samar izanen bagina, ura erabiltzean ez genituzke uretara botako hemen azaltzen diren gauza gehienak», hala nola, paperak, plastikak, konpresak eta abar. Aurretratamenduan sei edo zazpi tona hondakin ateratzen dira egunero. Eta hori guziaz ez da deustarako erabiltzen; edukiontzia bete eta Gongorara doa zuzen. Hondakin horiek oso kaltegarriak dira, ibaian oxigenoa pasatzen ez duen geruza sortzen baitute.

Aurretratamenduaren ondoren, lehen mailako dekantazioa dator. Bertan, urak lastertasuna moteldu egiten du; ondorioz, partikula esekiak hondoan pausatzen dira, eta lehen mailako lokatza izeneko sedimentua sortzen da. «Gosariko esnean kakaoa botatzen denean hondora jotzen du esnea geldirik badago», esplikatu du Ausejok. «Gauza bera gertatzen da urarekin eta gai organikoekin (kaka eta janari arrastoak)».

Ura arazteko Arazuriko prozesua hemen bukatzen zen 1999ko udaberria arte. Prozesu ho-

ri esker, urak zeramatzan solido esekien %65 kentzen ziren, eta karga organiko kutsakorren %35 gutitzen zen. Hau da, lehenbiziko begi kolpean uretan diferente agertzen zena kentzen zuten. Tratamendu biologikoa duela bi urte jarri zuten martxan. Horretan bigarren mailako dekantazioa egiten da: biologikoa.

## Mikroorganismoen lana

Tratamendu biologikoan, hainbat mikroorganismo materia organikoa degradatu eta nitrogenoa kentzen diote urari. Uretan disolbatu dauden gai kutsakorrek desagerrarazten dituzte (garbikariak, xaboiak). Mikroorganismoak partikulak jan eta multzotan biltzen dira. Multzo horiek dira dekantagailuetan dekantatzen direnak. Horien erdiak lokatz tratamendura eramaten dira, eta beste erdiak berri ere tratamendu biologikora itzultzen da sorturiko ekosistema hori mantentzeko.

Fase hori bukatzen denean, dekantagailuetako ur garbiak gainezka egiten du eta Arga ibaira doa. Hemen algak ikusten dira lehenbiziko aldiz, eta hori seinale ona da. Arazuriko ibairatzen den ura ez da edateko modukoa, baina nahiko garbi dago. Ur horretan ibaiko landare eta animaliak bizi daitezke. «Araztegiak ibaian gertatzen dena imitatzen du», dio Ausejok. «Ibaian badira urmaelak non ura geldirik dagoen eta lohiak dekantatzen diren. Ibaian badira mikroorganismoak ere. Kontua da hemen trinkotzen ditugula denbora eta esparrua».

Ura berri ibairatu dute, baina ez da hor bukatu Arazuriko lana; dekantagailuetatik ateratako lohiak edo lokatzak liseritu, deshidratatu eta higienizatu egiten dituzte, ongariak lortzeko. Hori lortzeko laguntzen duten bakterioek metanoa sortzen dute. Metanoa hori bildu eta, presio bidez, energia termikoa eta elektrikoak erdiesten dute.

Lohi freskoaren erdia ongari gisa erabiltzen da kultibo estentsiboetan (laboreetan). Eta beste erdia, Iruñerriko lorezaintzaren arrastoei nahastu eta gero, konposta bilakatzen da hiruzpalau hilabeteren bueltan, baratzezaintzan zein lorezaintzan erabiltzeko ongari ezin hobea. Mankomunitateak saldu egiten du konposta.


## Bisita gidatuak bihar

Hiru orduko bisita  
Iretera 10.00etan, Imaz Anaien kaleko 1 zenbakitiki  
Informazioa eta erreserbak, 948-423242 telefonon, gaurko 18.00ak arte.

→ Asier Azpilikueta

## 7) Eraikin nagusia eta kontrola

Bertan daude etengabeko azterketak egiten dituen laboratoriora, teleaginte eta telekontrol sistema aurreratuak, araztegiaren maketa, interpretazio zentroa eta bideoak eta diaposilibak ikusteko aretoak.



## 10) Gasa aprobetxatu

Lohien liseriketarik sortarazten duen biogasa deponitu batean bildu eta transformagailu plantara bideratzen dute, gasa energia termiko eta elektriko bilakatzeko.



## 6) Uraren ibairatzea

Lehen mailako dekantazioa gauzaturikoan, ur garbiak gainezka egiten du eta, jauzi itxia egin ostean, Arga ibaira ateratzen da. Jauzi itxi horri esker, prozesuan galduriko oxigenoa berreskuratzen du urak.


## 4) Aireztatze urmaelak

17.000 metro kuboko edukiera duten lau urmaeletan, zenbait mikroorganismo (bakterioak, protozoak, ondoak...) materia organikoa degradatzen dute, eta uretan disolbatu dagoen nitrogenoa atmosferara askatzen dute.




## 3) Lehen mailako dekantazioa

39 metroko diametroa eta 2,5eko sakonera duten sei dekantazio unitate daude, eta urak, haietako batera iristen delarik, lastertasuna galtzen du, esekiduran dauden partikulak hondoan pausatzen dira eta lehen mailako lohiak sortzen dira.



## 2) Harea eta koipea kendu

Koipea, olio, harea hondarrak (kristal itxiak, zigarrakinak, pipa azalak...) hondakin uretatik kentzen dituzte, ur korrontea 6 metro zabal diren hiru ubideetatik iragatzen, aire injekzio baten bidez.




## 1) Solidoak kendu

Zatik handiak eta xeheak gelditzen dituzten sareta batzuek hondakin urak dakartzan solidoak kentzen dituzte (plastikoak, paperak, konpresak, kondoiak...). Arazuritik 6.000 bat kilo hondakin solido ateratzen da egunero.

## 8) Lohien tratamendua

Araztegiaren prozesuan sorturiko lohiak liseritu, deshidratatu eta higienizatu egiten dira, kalterik egin ezin dezaketela ziurtatzeko. Lohiek hilabete egiten dute liserigailuetan. Hartzidura horretan, hainbat bakterio metanoa sortzen dute.



## 9) Nekazaritzan erabili

Tratatu eta gero, lohia laborantza estentsiboan (laboreak) baliatzen ahal da. Lohia Iruñerriko lorezaintzaren arrasto guzietan nahastu eta lohi konpostatuak sortzen dira, baratzezaintzan zein lorezaintzan erabiltzeko egokiak.



→ Argazkiak: Oskar Montero / Iruñerriko Mankomunitatea



# Yenka

**Ezkerrera.** Monte Carloren espaloi berean, tabernatik atera eta ezkererantz, entibadoraz pare bat astera —sistema metriko hamartarraren arabera, 25 bat metrora— dago nire betiko ile apaindegia. Duela hamasei urte ezkondu ginenetik, hutsik egiteke bi hilabetetan behin egin izan diot bisita Ricardo ile-apantzaileari. Lehendabiziko ile-mozketa egin zidalarik, **Bosmedianoz** hitz egin zidan. Azkenaurrekoan, **Ivan Rosadoz**. Haatik, duela zortzi aste azken aldiz ilea moztu zidalarik, hamarkada eta erdi pasatxoan lehendabizikoz, ez zitzaidan Gazteluko plazako taldeaz aritu —badakit Osasunak dagoeneko ez duela bulegorik Iruñeko bihotzako enparantzan, baina esamoldea gustuko dut, eta, gainera, Action-Woman erregionalistaren lurpeko aparkaleku egitasmoa eta Lehen Mailako sailkapena ikusita, tamalez badirudi plazaren eta futbol taldearen patuak lotuta daudela, bat eta bakarra direla: hondoratzea—.

**Eskuinera.** «Nola egiten duzu lo, ezkerreko ala eskuineko saihetsaren gainean?» itaundu ninduen Ricardok nire ileei lehen guraizekada ematearekin batera. Gehiegi pentsatu gabe, ezkerrearen gainean lo egiten dudala erantzun nion, kinie-lan zalantzan zuen emaitzaren bat erabakitzeke bere sistema bitxi horietako batekin ari zelakoan. Oker nenbilen ordea. **Eneko Landaburu** balitz bezala, arrapaladan azaldu zidan berak beti eskuinekoaren gainean egiten duela lo, iruditzen zaiolako bestela, bihotza ezkerrealdean dugulako eta grabitatearen indarra dela kausa, eskuin alboan odolik gabe geratzen zaiola. «Gure adinera helduta, horrelako-



Ivan Rosado Osasunako egungo golegilea.

ak zaintzen hasi behar dira» mehatxuzko batez burutu zuen hitz-aspertua. «Hori da hori pitokeria!», erantzun nion. Harrezkero, baina, ez dut lorik egiten ezkerreko saihetsaren gainean, ez eta eskuinekoaren gainean edo ahoz behera edo ahoz gora ere. Odol zirkulazioarekin obesionaturik, emaztearen desesperaziorako, yenka dantzan aritzen naiz, loak hartu nahi eta ezinean: ezkerre, eskuinera, eskuinera, aurrera, atzera, bat, bi, hiru.

**Aurrera.** Gauzak horrela, bi hilabete



Gazteluko plaza, Iruñeko bihotza, Action-Woman erregionalistak mehatxatua.

geroago, joan den astelehenean hain justu, ilea mozteko ordua heldu zitzaidalarik, ez nintzen nire gaubeila desiratugabeen eragilearengana itzuli. Monte Carloren eta Ricardoren ile apaindegiaren espaloi berean, aurrerago, entibadoraz beste pare bat astera, bada beste ile apaindegi bat bi neska modernok gobernatzen dutena. Hara joan nintzen. Nire biloei lehen artazikadaxoa ematearekin batera, irribarretsu eta, irudituz zitzaidanez, pinpirin, ile-apaintzaile ilehori oxigenatuak izena galdetu zidan. Nirearen berri eman eta bereaz galdetzen nion birtartean, jasoko ez zuela jakinagatik ere, Ricardori mezu telepatikoa igorri nion: «To adina!». Neska Vanesa deitzen zen, eta denek Uve deitzen zuten. Nik beste **Uve** bat ezagutzen nuela esan nion. Duela bost urte zendu zela. Miserikordia

etxean bizi zela. Gizon ona zela. Burutik oso sano ez zegoela. Bere burua Osasunako jokalaritzat zuela. Azken partida zergatik ez zuen jokatu galdetzen zeniorarik beti aitzakia zuela: «**Alzate** kabroiak ez nau gogoko»; «Belauna guztiz osatuta ez dudala-eta **Zabalzak** nahiago izan du hurrengo norgehiagoka arte itxaron»...

**Atzera.** Gogotsu, Uveri luze aritu nintzaion Uvez lana amaitu zuen arte. Gero, 2.500 pezeta kobratu zizkidan —Ricardok baino 200 duro gehiago—, eta zoldaren aurkako xanpua gomendatu zidan. Sekula ez dut zoldarik izan. Nago gomen-dio metaforikoa izan zela. Nago hurrengoan Ricardorenera itzuliko naizela. Nago—tamalez— Osasunak maila galduko duela.



## panpilonia zirkus

# Klorofilia

Hau egaria. Beste Coca-Cola bat erostera noa. Ekainak 15. Udako denboraldiaren lehen eguna. Gaur bertan beteko dituzte urez. «Familiarteko giroa da hemen nagusi». Pedro Irigoren hitzak dira, Donibane kirol elkarteko gerentearenak. Ez nago eroso horrela etzanda. Gainera, inurritz betetzen ari da toaila.

Oberena ez da hoberena. Alfredo Jaimek oso paella txarrak prestatzen ditu bertan.

«80.000 lagun daude bazkidetarik Iruñeko igerilekuan, biztanleen erdiak kasik». Hobe disimulatzen dut sobera eta eskas dudana bermudekin. Hala ere, paketeman bainujantzia nahiago dut. Oraindik ere debekaturik al dute emakumezkoek sarrera Club Larrainan?

«Aisiaren kultura oso zabaldurik dago hiri honetan. Gero eta denbora libre gehiago eta diru arazo gutxiago du jendeak». Nivea-16 body milk ahulegia da nire larruak behar duen babeserako. Ordenagailu berriaren truke ordaindu dudana halako bi balio du bazkide egiteak elkartetortan. «Milioi erdi inguru eskatzen zaio sartu nahi duen lagun bakoitzari».

Beste nonbait ikusi dut goardasolaren itzalpean dagoen neska hori. Zergatik deitzen da General Mola Antoniutti parkean dagoen elkartea? «Udalaren ardurapean egon beharko lukeen funtzio soziala betetzen dugu, hiriarri zerbitzu paregabea eskainiz aspalditik».

Bihar bertan erosiko ditut betaurreko



Gaur hasiko da, Iruñeko igerilekuen udako denboraldia.

beltzak eguzkiari aurre egiteko. Zergatik bereganatzen dituzte kirol elkarte hauek gero eta lursail publiko zabalagoak? «Udan ez ezik, urte osoan ditugu irekita ateak. Aukera zabala dago benetan. Igerileku estaliak, gimnasioak, kirol guztiak praktikatzeko zelaiak eta kantxak, squash, saunak...».

Azken mokadua hartu eta uretara noa. Ez naiz bi orduz murgiltzeko zain egonen ttikitan bezala. Club de Tenisen bazkide-tzea ezinbestekoa al da kategoria berezia izateko Iruñean?

«Batez ere, elkarte hauek senide, lagun eta auzokideen arteko topagune dira. Harremanak sendotzeko toki aproposa. Afariak, festak, kirol eta kultur ekitaldiak antolatzen dira, eta egoitzatik at, txangoak, ateraldiak eta beste hainbat ekin-tza ere bai».

Sei ordu daramatzat hemen eta Jasone Osóroren azken liburuen 12 orrialde besterik ez ditut irakurri. Leku desgokia da leitzeko edo obra oso txarra da. Agian biak.

Pribatuak dira igerileku gehienak Iruñean: Donibane, Anaitasuna, Amaia, Tennis, Oberena, Larraina, Osasuna, General Mola, Natación, Rochapea, Echavacoiz eta Txantrea. Publikoen artean, Aranzadi, Nafarroako Kutxaren igerileku estalia, Nafarroako Gobernuaren Guelbenzu elkarte eta Larrabide estadioa. Igerileku publiko berria Sanduzelain egiteko asmoa dago. Asmoa.




## Patxi Telletxea

IRUÑEKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO ZUZENDARIA

## «Agintariek hizkuntzak ikasi beharko lituzkete»

Azken azterketak egiten ari dira egunotan Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskolak ekainaren hasierarekin batera bukatu ondoren. 8.000 ikasle inguru igaro da aurten zentrotik, ikasle ofizialak eta ofizial ez direnak kontuan hartuta. Espazio falta da oraindik eskolak duen arazo nagusia.



soslai

● MIKEL SAIZ

**H**IZKUNTZA ESKOLAK DITUEN lehenetsuen artean liburutegi espezializatua edukitzea da nagusietako bat, Patxi Telletxea zuzendariak azpimarratu digunez. Harekin mintzatu gara eskolaren lanaz eta asmoez.

■ **Ikasturtea amaitu berri da Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean eta ia ikasle guztiek egin dituzte azterketak. Zenbat jende igaro da aurten eskolako geletatik?**

Kontuan hartu behar da bi motatako ikasleak ditugula: batetik, ofizialak, eta, bestetik, eskolara azterketa egitera besterik etortzen ez direnak. Ofizialak ia 4.000 dira, eta azterketa egitera etorri direnak, beste hainbeste.

■ **Era askotako jendea izanen da ikasleen artean, ezta?**

Horren inguruko inkestarik ez dugu, baina esaten ahal dugu hizkuntzen arabera aldatzen dela ikasleen soslaia. Ingelesa ikasten dutenen artean, esate baterako, gehienak unibertsitatean ari diren ikasleak izaten dira. Aldiz, euskarari dagokionez, badira horrelakoak ere, baina etxeokandreak ere izaten dira, goizez ikasten dutenak, edo ikastolan umeren bat dutenak. Alemana ikasten dutenen artean, berriz, asko aldatzen da soslaia eta hor agertzen dira enpresetan lan egiten duten lagunak. Volkswagen en-

presaren eragina nabaritzen da, dudarik gabe. Ingelesaren ondoren —156 taldeetatik 65 ingelesekoak dira, ikasleen %41— alemana da bigarren hizkuntza, eskaera kontuan hartuta.

■ **Japoniera, errusiera edo arabiera ere irakasten dituzue; zer-nolako harrera dute horiek ikasleen artean?**

Hiru bat urte daramatzagu hizkuntza horiek irakasten eta harrera ona izan da. Pixkanaka, gure helburua da horietako bakarren bat kurrikulum ofizialera pasatzea, seigarren hizkuntza ofizial bilakatuz. Badirudi arabiera izanen litzatekeela seigarrena, jende askok ikasi nahi baitu.

■ **Europako Hizkuntzen Urtea ospatzen da aurten; zerbait berezirik prestatu al duzue zuek?**

Bai, ekitaldi nagusiak urritik

Iruñean jaio eta haurtzaroa Basaburuko Igoa herrian eman ondoren, Burlatan bizi izan da azken 29 urteotan Patxi Telletxea. Burlatan, hain zuzen ere, Axular elkarte kide da, eta elkarte horrek plazaratzen duen *Axular* aldizkari arduradunetako bat.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean 1990. urtean hasi zen lanean Telletxea. Euskara departamentuko irakaslea da, eta, azken urtean, zentroko zuzendari ere bai, Jose Miguel Galartzaren ordean.

Eskolako jarduerari dagokionez, bi berrikuntza nabarmendu ditu: batetik, azken hiru urteotan sarean izan duten webgunea berrituko dutela laster, eta, bestetik, egoitza berean hizkuntzak bakoitzak bere kabuz ikasteko zentroa paratu berri dutela. Eskolak bultzatutako ekimena izan arren, zentro autonomoa da.

aurrera, hau da, datorren ikasturtean egingen ditugu. Hainbat kultur ekitaldi antolatuko ditugu: hitzaldiak, antzerkia, kontzertuak, eta hizkuntzen inguruko zinema ziklo bat ere egingen dugu, urritik abendura.

■ **Ospakizunak alde batera utzita, espazio falta da aspalditik eskolak duen arazo nagusia, urtero jende asko gelditzen da lekurik gabe; zertan dago afera hori?**

Esan beharra dago aurten au-

«Leku gutxi daukagu; eskola trikia gelditu zaigu eta ondoan dagoen San Juan eliza erabiltzeko baimena lortu nahi dugu»

rrematrikulazioan 3.000 gutxiagok eman dutela izena eta urtetik urtera aurrematrikulazioa behe- ra doala. Ez dakigu zergatik gertatzen ari den. Batetik, izan daiteke egoera bere horretara itzultzen ari dela, hainbat urtez 8.000 lagun aurrematrikulatu ondoren, eta, bestetik, izan daiteke jendea ikaratu egiten dela pentsatuz lekurik ez duela izanen. Eta nik argi eta garbi esan nahi dut hizkuntza eskola honetan nahi duenak lekua lor dezakeela. Ez dugu ahaztu behar ere hau helduentzako eskola dela, eta, etorkizunera begira, ikasturte malguagoak antolatzeko aukera aztertu beharko genuke, motzagoak agian.

■ **Espazio faltarekin lotutako arazo bat eskolan liburutegirik ez dela da; hori lortzea da orain zuen lehentasun nagusia?**

Nagusietako bat, behintzat. Ez

daukagu liburutegirik, ezta irakasle gelarik edo kultur jarduerak egiteko leku nahikorik ere. Txikia gelditu zaigu eskola eta Iruñeko Gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin hitz egiten ari gara, ondoan dagoen San Juan eliza osoa, edo gutxienez areto batzuk, erabiltzeko. Horretarako baimena emanen diguten esperantza badugu. Liburutegia, adibidez, premiazkoa da. Liburutegia hizkuntzen inguruko gaietan espezializatua nahi dugu.

■ **Beste gai bati helduz, nola ikusten dituzue eskolan Nafarroako Gobernuak euskararen inguruan onartutako dekretuak?**

Eskolako irakasle klaustruak gai horren inguruko agiria onartu zuen, euskararekiko errespetua eskatzeko. Gu hizkuntzen profesionalak gara eta zentro honetan, naturaltasun eta normaltasun osoz, bederatzi hizkuntzatarako jendea bizi gara. Bi hizkuntza ofizial ditugu, euskara eta gaztelania, eskolak zerbitzua ematen diolako Nafarroa osoari. Horrek guztiak erakusten du agintariek hizkuntzen inguruan zeinen gutxi dakiten. Hizkuntzak ikasi beharko lituzkete hizkuntzen arteko elkarbizitza oso normala dela konturatuzko.

→ Edurne Elizondo





## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Denbora-makina

Zine zuzendariek maiz erabilitako asmakizuna da denbora-makina. Bada-kizue: norbait makinan sartu, botoia sakatu eta morroia erromatarren garaira bidali. Zinemagintzan ez ezik, politikan ere saltoka ibiltzen gara, edo ibiltzen gaituzte, baina aukera mugatua dugu, mugatuegia. Edo bueltaka puntu beraren inguruan. Kontua da toki berean gelditzea, zurrumbilo ero honetan bueltaka bizitzea bidaiarik kilikagarriena balitz bezala.

Ez al zaizue inoiz gertatu pelikula bat ikustera joan, filma hasi eta hura ezaguna duzuela pentsatzea, nahiz eta jakin pelikula ikusi gabea duzuela? Ba, antzeko zerbait gertatu zait niri asteko albisteei errepasoa egiterakoan. Alde batetik, ETAk gehienona ez den mundu batean bizi nahi duela jakin dugu, kritikarako ahalmen falta berri ere agerian uzteaz gain. Ondoren, elkarrizketa egin zutenen aurkako mehatxuak (soinu ezaguna, ezta?). Polizia unibertsitatean sartu eta laurogei euskaltzale eraman ditu (30 urteko atzera-saltoa denbora-makinan antzekorik ikusteko) ikastetxeko arduradunen lotsagabekeria modu baketsuan salatu nahi dutelako. Bai, lagunok: politika eta zinearen arteko harremanak uste baino estuagoak dira. Aktoreak filmerako bezain ongi ikasten dute politikoei erran beharrekoa, eta gizartea nazkatuagatik jo eta ke segituko dute, nork bere sermoia errepikatuz, pelikulari izan zezakeen emozioa lapurtuz, aurretik den-dena ezaguna delako. Film aspergarriez asperturik, hona galdera: zer egin dugu guk horien guztien eskuetan preso bizitzeko? Ba al daki inork? Baiezkoan, faborez, argitu misterioa. Eta ezezkoan, eskaera bat: egunkariak gutxitu dezatela alde batekoen nahiz bertzeoien sermoiei eman ohi dieten toki zabala. Ni, behintzat, nazkatzaren hasia naiz. Bada garaia zurrumbilo honetatik libratzeko, aspergarria eta nazkagarria delako. Lizarbek azken bi urteotako oposizioari buruz (ona txisteal!) idatzi duen liburua ere aste honetako gertaerek laburbiltzen duten egoera baino interesgarriagoa dela deritzot. Beno, agur, sozialisten best-sellera erostera noa agortu baino lehen.

## gure aukerak

### MUSIKA

- ▶ **Atarrabia:** Gaur, Komodemu taldearen erritmo afrikarrak Udaletxe plazan izanen dira entzungai, 22:00etatik aurrera.
- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Labrit kantari usurbildarrak kontzertua eskainiko du gaur, 23:00etan, Leku-Ona tabernan.
- ▶ **Iruñea:** Arrotxapeko jaien barruan, Selektah Kolektiboa, Idi Bihotz eta Iraileko Sei taldeen kontzertua izanen da gaur, 23:00etan.
- ▶ **Olazti:** Anorexia taldeak gaztetxean joko du gaur, 23:00etan. Bihar, aldiz, Uharteko gaztetxean joko du, 23:00etan.
- ▶ **Zangoza:** Pop-rock lehiaketaren barruan, gaur, The Howlings taldeak Espejo tabernan joko du, 23:00etan, eta Grey Souls taldeak Blues tabernan, 00:00etan.
- ▶ **Añorbe:** Arrapo de Monte eta bere mariatxiek kontzertua emanen dute bihar, herriko plazan, 12:30ean.
- ▶ **Iruñea:** Indar Gorri peñak antolatuta, bihar, 21:00etatik aurrera, kontzertua egingen dute Sadarcillon. Senza Sicura (Italia), Dekadenzia (Jimmi Tijuana + Juan txo Skalariek + Kutx Ultimatum + Drogas eta Alfredo Barricada), Non servium (Madril) eta Rana Toro taldeek joko dute.
- ▶ **Bera:** Oskorri taldeak kultur etxean joko du bihar, 22:00etan.

### DANTZARIAK

- ▶ **Barañain:** Musika, dantza eta kantu ikuskizuna eskainiko dute gaur, Udaletxe plazan, 22:00etatik aurrera. Barañaingo gaitariak, dantzariak, abesbatzak, erraldoi eta buruhandiek, txistulariek eta akordeoi-lariak hartuko dute parte.

### BERTSOLARIAK

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Arrotxapeko jaien barruan, bertso afaria egingen

dute peñan, Jon Maia eta Esti-txu Arozenarekin.

- ▶ **Sara:** Bihar, Sareta elkartearen bertso afaria izanen da, Jon Maia eta Xabier Amurizarekin.

### ANTZERKIA

- ▶ **Zizur Nagusia:** Pantha Rei taldeak Saraba haurrentzako lana taularatuko du asteartean, 19:00etan, Erreniega parkean.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Urbasako astronautak haurrentzako antzerki lana eskainiko du ostegunean Hankagorri taldeak, 19:00etan, Erreniega parkean.

### ERAKUSKETAK

- ▶ **Mutiloagoiti:** Carlos Purroy eskultoreak kultur etxean dagoen bere erakusketari buruz hitz egingen du, gaur, 20:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Tomas Sobrino eta Maitte Orduñaren margolanak Pintzel galerian daude ikusgai (Abejeras, 6), hilaren 23a arte. Orduetgia: lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

### BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Gaurtik igandera Bildu-

mazaleen Azoka egingen dute zeren-plazan, 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

### BESTAK

- ▶ **Berbitzana:** Euskararen eguna ospatuko dute bihar: kalejira (11:00); dantzariak plazan (12:00); laien lasterketa (13:30); herri bazkari autogestionatua zuhaitzian; Popi eta Zarratrako pailazoak (17:00); herri kirolak, gurasoak seme-alaben aurka (18:00); rock kontzertua; hankapaloak; malabarismoa eta txalaparta (19:00).

MIKEL SAIZ



### Heldu da uda

Uda badator eta zenbaitzuek hasi beharko dute hondartzetan paseatuko dituzten sabelaldeak egokitzen; soberako txitxi horiek desagerrarazten, alegia. Izarbeibarreko alkateak mobilizazioetan dabilta egunotan, Nafarroako Gobernuak kartzela euren ibarrean eraiki ez dezan. Iragan larunbatean manifestazio jendetsua egin zuten. Kontua da etxe ondoan inork ez duela kartzelarik nahi. Presoak gizarako soberako txitxiak dira. Hortxe daude, gizaratearen errailetan irentsirik. Gizarateak ezin ditu soberako txitxiak kendu eta, gehienez ere, txitxiak disimulatzea lortzen du, gerruntzeak jantziz edo indarrez arnastuz. Baina harturiko arnasa ezin da gorde betiko sabelaldean, eta, noiz edo noiz, berriz agertuko dira txitxiak. Kartzela Iruñetik kanpora eraman dezakete, baina horrek ez ditu txitxi-presoa desagerraraziko.